

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIKO UDALA

Mugaketa espedientea izapidetzea

Uskategira doan C-6210 errepideko bide publikoari eragiten dion mugaketa egiteko udal honetan izapidetzen ari den espedienteari dagokionez (matrikula-zenbakia: 41110000), 2020ko urtarrilaren 27ko ALHAOn (10. zk.) eta Amurrioko Udaleko iragarki-taulan (2020ko otsailaren 12an) iragarki hau argitaratu zen:

AMURRIKO UDALA

Mugaketa prozedura hastea

Osoko bilkurak, 2019ko azaroaren 28an egindako bilkuran, honako hau erabaki du:

1. Uskategira doan C-6210 errepideko bide publikoari eragiten dion mugaketa-prozedura hastea (matrikula-zenbakia: 41110000, udal-titulartasunekoa), Amurrioko Bideen Udal Inbentarioan jasota dagoenaren arabera, 370 metroko luzerarekin eta 1480 m²-ko azalerarekin, Amurrioko 12. poligonoko 280, 311, 312, 313 eta 418 lurzatien mugakidean.

2. Mugakide diren finken jabeei eta beste eskubide erreal batzuen titularrei mugaketa-espedientearen hasiera jakinaraztea, eta adieraztea ezen, Toki Erakundeen Ondasunen Araudiko 62. artikulua arabera, Amurrioko Udaleko udal-bulegoetan egoki iritzitako alegazioak eta agiriak aurkez ditzaketela, frogara eta beren eskubideen defentsara bideratutakoak, apeo eragiketak hasi baino hogeit (20) egun lehenago arte. Ez da ez dokumenturik ez alegaziorik onartuko. Korporazioak bidezkoa dena erabakiko du aurkeztutako frogara eta agiriei dagokienez.

3. ALHAOn eta Amurrioko Udaleko iragarki-oholean iragarkia argitaratzea, mugaketa-lanak hasi baino hirurogei (60) egun lehenago Jendaurrean jartzeko epean, espedientea interesdunen eskura egongo da Amurrioko Udaleko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendien Arloko bulegoetan.

4. Mugaketa-lanak hasteko eguna mugaketa-iragarkia ALHAOn argitaratzeko aurreikusitako hirurogei eguneko epea amaitu eta hurrengo hamargarren egun balioduna izango da, eta eragiketen hasiera eta tokia finkatuko dira interesdunei egiten zaien jakinarazpenean.

5. Adierazitako egunean, Udal Zerbitzu Teknikoak adierazitako lekura joango dira. Bertan, adierazitako tarteetan bidearen mugak zehatz-mehatz finkatuko dituzte, dagokion planoan egingo dute eta dagokion akta egingo dute. Bertan, Ondasunen Araudiko 64. artikuluan adierazitako erreferentzia guztiak jasoko dira, eta bildutako pertsona guztiek sinatuko dute Onartzeko erabakia irmoa denean, mugarriak jarriko dira, interesdunek esku hartuta.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Amurrio, 2020ko urtarrilaren 20a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA

Alde horretatik, eta espedientea izapidetzen jarraitzeko, jakinarazten dizut mugaketa lanak jarraian zehazten diren egunean, orduan eta lekuan hasiko direla:

Tokia: Uskategira doan C-6210 errepideko bide publikoaren eta Amurrioko 12 poligonoko 313 lurzatiaren arteko elkargunea, Tontorra dermioan.

Eguna: Bi mila eta hogeiko maiatzaren hogeita zazpia (2020-05-27).

Ordua: Ordua: goizeko 10etan.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, aurreko iragarkia Udaleko ediktu oholean argitaratzen denetik (2020ko otsailaren 12a) mugaketa lanak hasi baino hogeie egun baliodun lehenago arte (2020-04-29) interesdunek beren eskubideen probarako eta defentsarako egokiak iruditzen zaizkien alegazioak eta agiriak aurkez ditzaten Amurrioko Udalean.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, halaxe xedatzen baitu Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamenduak 60. eta 61. artikuluetan.

OHARRA: Jakinarazten da, udalean alegazioak eta beharrezko dokumentuak aurreikusitako epearen barruan aurkez daitezkeen arren, mugaketarako laguntza teknikoaz arduratzen den enpresak (Gorosti Neurketak S. L.) egun bat eman duela interesdunek, hala badagokio, horri buruz behar duten informazioa jaso dezaten, bai eta egin daitezkeen alegazioak tokian bertan berrikusi ditzaten, eta zalantzak kontsultatu edo mugaketa lanak egiteko intereseko edozein datu azaldu dezaten. Gainera, interesekoa den aurkeztu ahal izango dute (jabetza eskriturak), egoki iritziz gero.

Eguna 2020-04-22a izango da, Amurrioko Udaleko bulegoetan.

(Hitzordua zehazteko, alde zurretik deitu behar da Gorosti Neurketak SL sozietatera: 945 26 99 14 telefonora edo 665705019 telefono mugikorrera).

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Amurrio, 2020ko otsailaren 13a

Alkatea

MIREN JOSUNE IRABIEN MARIGORTA